Marmari

Leitzako aldizkari gaztea

Aspertuta?

Orain ez daukazu motiborik, zatoz gurekin!

Erreportaiak, Elkarrizketak, Mahainguruak, Komikiak, Denborapasak, Fotonobela eta beste hainbat gauza inork lo har ez dezan!



Komikia. Eklipsea 4-6

Marmari. Zer gara? Nor gara? 7

Elkarrizketa. Juan Ramon Lizarraga eta Arantxa Agirre. Atzoko eta gaurko Aurrera 8-11

Kronika. Leitzarrak Bermeon 12-13

Mahai-ingurua. Leitzar gazteak euskararen erabilerari buruz hizketan 14-19

Inkesta. Institutoko ikasleen usteak, iritziak 20

Ezetz asmatu: argazki zaharrak 21

Fotonobela. Euskaraz 'lanean' (II) 22-23

Denborapasa. Bertsoak, txisteak, gurutzegrama 24-25

Hizkuntzarekin jostatzen. Hizkuntz trebetasunak edo hizkuntz trabatasunak 26

Eroskopoa-Kino. 27

Kontrazala. Galderak eta erantzunak 28



• Argitaratzailea: MARMARI euskara taldea • Diseinua eta maketazioa: Allende Arnaiz
• Komikia: Eugenio Mihura • Aktoreak: Urko Goizueta, Aitor Etxarri, Izaskun Arrizurieta, Bihotz Astibia
• Laguntzaileak: Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Udalen Euskara Zerbitzua

Nafarroako Gobernuaren Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza

Nafarroako Gobernua

Sarrera Sorrera

Zuentzat idatzitako lehen lerroak izanik, zaila zaigu, bereizten gaituen hesia zeharkatu eta nor garen adieraztea; horregatik arrapaladan hiztegira jo dugu babes bila eta honek honela adierazi digu:

- **(Harridura) MARMAR:** *ahopean batera hitza egiten dutenen zaratots nahastua.*

«Hori ote gara gu?!»; «Zaratots nahastua?!»; bai, baliteke; baina ahopean?... Ez, ez dirudi gurekin bat datorrenik definizio hau, aurrera jo beharko dugu.»

- **MARMAR(tu) DU:** *belarriara isilpean hitz egin.*

Beno, zuekin garbi jokatu behar badugu, ba... bai, ze demontre, onartzen dugu noiz edo noiz *marmaratu dugula*, hala ere hau ere ez da gure izaera, ez.

Definizoetan aurrera goaz eta denek isilpeka gabiltzala diote; eta gu, ez gaude konforme. Beraz aurrera goaz: marmarka ari da, marmarti eta bapatean... MARMITA; marmita?! «Eh?!»; «Eih! Pasa egin gara!».

Azkenean beste hiztegi bat hartu dugu; gero eta urduriago, zuen aurrean gure definizioa emateko gai izango ez garen beldurrez. Oraingoan sinonimoen hiztegira jo dugu.

- **MARMA:** *murmurio, armonia, berbaro, hitzaro.*

Honako hau gure nahietara gehiago hurbiltzen da (lasaitasun pixka bat). Marmar egin, marmara, marmara egin, marmaratu, marmarati, marmita (berriro). Ez dugu nolanahi lortzen MARMARIren definizio egokirik. Definizio guztien arabera hiztunak gara bai; baina batzuentzat txutxu-mutxuan gabiltza, besteen ustez purrustean eta... beno, gutxienez denak bat datoz antonimoa zehaztean: ISILTASUN. Hori argi dugu, ez gara berehala isiltzekoak!

Talde honetan badugu zer esanik eta erne ez dabilena... txanda pasa! Badakizue: «egin lo eta janen dok/n me»

Argi dago! Talde honetan badugu zer esanik eta erne ez dabilena... txanda pasa! Badakizue: «egin lo eta janen dok/n me». Badakigu, ordea, zuek ere baduzuela zer esanik eta horren erakusgarri honako aldizkari hau. Bertan gazteok, herriari, norberak adierazi nahi izan diona bildu dugu. Kezkak, interesak... hamaika eta norberak ahal duen moduan eutsi dio bere adierazi nahi horri. Hurrengorik balego zuk ere berdin egin zenezake. Marmarrean, marmarian... aritu zintezke edo behintzat isiltasuna apur zenezake.

Bitartean hemen daukazu honako harribitxi hau, goza ezazu gustuko tokian, bakarrik, taldean, komunean, belatsoan... zure imaginazioaren esku uzten dugu. Hori bai, ez ahaztu taldea ez dela arduratuko sor ditzakeen ezustekoez. Besterik gabe ongi izan eta hurrenarte!



1

BARKOLOTTE BELDURTUA,
BAAT NE
KAKAL
ABRIN!
BAAT NE
ARTEAN
ERAGINDA, ARTIAK
SAKRIFIZIOA EGIN DU

BERANDUNGO
BARTOLOME
ARRAZOLAREN
BIHOTZA, ESKAINTZA HARRIAREN
GAINEAN ODOLUSTUTZEN ARI
(DIZDIRATUZ,
EGUZKI ERLUPEAREN ARPIAN). BITARTEAN,
INDIGENETAKO RAT AHOTS GORABEHERARIK
ETA ARISTOTELESEN LAGUNTZARIK
GABE,
MAYETANO ASTRONOMEK
ZYLUETEN EGUZKI ETA
ERLUPEEN DATAK

Marmari zer gara? nor gara?

▼ ZER GARA?

- Leitzako talde bat
- Leitzako euskara talde bat
- Leitzako euskara talde bat, gazteek osatua

▼ ZER EZ GARA?

- euskararen salbatzaileak
- euskaltzaindiaren komisarioak
- euskalduntasunaren esentziaren zaindariak
- euskararen parakaidistak

▼ NOR GARA?

- koadrilla ezberdinetako lagunak
- jende gaztea
- euskararen alde zerbait egin daitekeela pentsatzen dugunak
- pentsatzeaz gainera, zerbait egin nahi dugunak, eta saiatzen garenak

▼ NOR EZ GARA?

- herriko euskaldun jatorrenak
- euskara txukunena dugunak
- euskal dantza eta kanta guztiak dakizkigunak

eta zer egin nahi dugu?

Gauza asko egin nahi genuke, baina nagusiki bi ildotik jotzen dugu. Alde batetik, euskararen inguruko ideiak, eztabaidak, kontraesanak, iritziak, hausnarketak,... plazaratu, gazteak honen inguruan pentsatzen eta eztabaidan jartzeko. Horretarako egin ditugu orain artekoak (1999ko udako kartel-sorpresa hura, Ttipi-Ttapako gehigarria, pegatina, irratisaioa, kamiseta, aldizkari hau,...).

Bestetik, gazteekin zuzenean harremanak izan nahi ditugu, koadrilla eta pertsona ezberdinekin, gai hauen inguruko jarrera aldaketak pixkanaka eragiteko (uuf!, ez da nolanahikoa, gure helburua!). Horrelako zerbait egin genuen taldea sortzeko garaian, koadrilla ezberdinetako jendea bilduz, eta horrekin jarraitzeko asmoa dugu. Gutxienez, pentsatu eta hitz egin. Hortik aurrera, norberak nahi duen guztia.

Azkenik, eta euskara taldea garenez, euskararen inguruko bestelako lanetan ere laguntzen dugu: Oinarriak-en kanpainako sinadurak biltzen, EHEren euskararen tunelean,...

Atal honetan Marmarikoak nor garen azaldu nahi dugunez, argazki bat sartzea erabaki dugu. Hala ere, argazki hutsa ateratzea errazegi iruditu zaigunez, zer edo zer aldrebesagoa egin behar genuela pentsatu dugu. Beraz, bi ariketa proposatu nahi dizkizuegu:

- hamaika aurpegi dituzu. Horietako 9 Marmari taldeko kideak dira; beste biak, berriz, taldekoak izan gabe argazkian lagundu zigutenak dira. Asmatuko ote zenuke nor diren taldeko 9ak?
- hamaika aurpegi horietatik 9 goiko argazkian daude, eta beste bi ez. Asmatuko te zenuke aurpegi bakoitza zer gorputzari dagokion?

Aurrera elkarteko lehengo eta egungo zuzendaritzako kideekin solasean.

Aurrerantzean ere, Aurrera

Jakingo duzuenez, urte hasieran gure Aurrera elkartearen zuzendaritza taldearen berritu zen. Marmarikook, beraz, lehengo eta gaurko ordezkari bana bildu, Juan Ramon Lizarraga eta Arantxa Agirre hain zuzen, eta galdera batzuei erantzutera gonbidatu genituen, honako hau izan zelarik emaitza:

Juan Ramon Lizarraga eta Arantxa Agirre. lehengo eta egungo Aurrerako kideak.

Lehengoekin hasiz...

◆ **Zenbat urtez eta zeintzuk aritu zarete lanean lehengo juntan, Juan Ramon?**

JR: Lehenagoko «junta-direktiba» delakoa 4ek osatzen genuen: lehendakaria Fermin Barriola zen, ni lehendakariordea, Juan Inazio Lizarraga idazkaria, eta Jesus Mari Ariztimuño diruzaina.

Urteei dagokionez berriz, Ferminek 13 urte zeramatzan juntan, nik 11, eta besteek berriz, 8 bat urte inguru, asko benetan.

◆ **Zuen artean antolatzen al zenuten dena? Ez al zen geihegitxo izanen laurentzat?**

JR: Beno, esan behar da hasiera batean sail bat sartu ginela, oraingo hauek bezala ilusioz lanera, baina denbora pasa ahala, jendea pixkanaka desagertu eta bere gauzetara zuzentzen hasten da.

14-15 izatetik 4 gelditzera pasa ginen eta horien artean ere nahikoa lan: Jesus Marik, kontu guztiak eramaten, eta ongi eraman ere, bazuen zereginik, beraz, ezin zuen beste saltsetan ari; Juan Inazio idazkaria ere, orain Iruñean bizi da eta bere beste istorio batzuekin lanpetuta egonik, gutxitan eta nahiko behartuta aritzen zen hemengo gauzetan.

Beraz, Fermin eta biok gelditzen ginela eta bera gainera Iruñean egonda,

Aurrera elkarteko lehengo eta egungo zuzendaritzako kideekin solasean.

lana nahiko pisua egiten zen, nahiz eta Mallo eta beste batzuren laguntza izan.

◆ **Hori izan al da berrikuntzaren arrazoia?**

JR: Bai, gehienbat bai. Azkenaldian nekatuta geunden ardura guzia hain gutxiren artean banatzeaz, gure bizitza, lana etab. ere hor baitaude. Baina, jende berria inplikatzen saiatu baginen ere, azkenean, betikora itzultzen ginen.

Beraz, argi zegoen goitik behera aldatzea zela irtenbidea, hau gainbeheran zihoanez, gu irten eta odol berria, ilusioduna kargu egitea, alegia, eta hala izan da.

◆ **Zeintzuk izan dira zuen helburuak, urte hauetan guzietan? Izan al dute bilakaerarik?**

JR: Ba, egia esan behar badut, azkenaldiko egoera dela medio, gure helburuei jarraitzea baino gehiago, egunerokoan irautera mugatu bagara ere (krossa, pestak, lokala...), hasiera batean, asmo ugariren atzetik jo genuen:

Hasteko, aipatu behar da 1970 aldera koadrila batek Aurrera sortu zuenean, gaztetxe moduko bat eratzea zela helburua, orduan ez baitzen deus ere gazteentzat.

Gu horri eusten saiatu bagara ere, argi dago honelako etxea, futbola, pilota... mantentzeko gaztetxe ideia horiek asko aldatzen direla derrigor. Horregatik, eta Gazte Asanblada sortzeko lehenengo pausoak Aurreratik abiatu baziren ere, orokorki gure helburu izan direnak, herrira begira gazteentzat (eta gaur egun agian, adin gehiagokoei begira ere, Aurreran larri asko baitaude) gauzak antolatzeari lotu zaizkio: euskal giro herrikoian, kirolean, kulturan, jaigiroan, etab. herri guztia barne hartuz, ez baikara inoiz bazkideetara mugatu (agian hain justua izan ez dena, ordaintzen dutenekin berezitasunen bat egon beharko lukeela uste baitut).

Juan Ramon

«Orokorki gure helburu izan direnak, herrira begira gazteentzat (eta gaur egun agian, adin gehiagokoei begira ere, Aurreran larri asko baitaude) gauzak antolatzeari lotu zaizkio»

◆ **Hutsaren truke pasatako orduek, emango dute zer pentsatua ez? Egindakoa eskertu zaizuela uste al duzue?**

JR: Dudarik gabe, hori aipatu beharreko kontua da. Ez da bakarrik ez duzula kobratzen, baizik eta ia beti galera pertsonalak dituzula. Bai, telefono dei ugari, bidaiak hau edo hori egin behar delako, etab. gure kontu doaz eta, are gehiago, zenbat aldiz antolatu dugu zerbait, ekitaldi horretan lan egin, garbitu... eta gainera sarrera ordaindu badaezpada galerarik ez egotea ziurtatzeko? Mila aldiz.

Baina egia esan, ez dakit jendea zenbateraino ohartzen den horretaz, izan ere kritikatzeko garaian bakarrik etortzen baitzaigu. Lana eta dirua utzi , eta gainera bustitzen ez direnen-

Aurrera elkarteko lehengo eta egungo zuzendaritzako kideekin solasean.

gandik kexak aitu behar. Baina beno, bestalde satisfazio pertsonal bat jasotzeak, herria mugitu eta pozik gelditu izana ikustean etab. ere... dena ez da hain beltza. Baina materialki pentsatuta, bai «tonto» samarrak ez ote garen izan...

◆ **Atzera begiratu eta zer datorkizu burura Aurrera esaterakoan, Juan Ramon?**

JR: Ba...beti dago barnean daramazun zerbait, nik daramadan zera bat...Neretzat oso pentsamendu positiboak dira, 11 urtez nire denbora hemengo lanetan pasa eta gero... imagina dezakezue!

◆ **Zein aholku emango zenieke, oraingo gazte hauei?**

JR: Hasteko, ikusi dut 25 pertsona direla, eta gutxiagotuz joango direla uste badut ere, lana ongi banatzeko esango nieke.

Bakoitza bere esparruan ongi aritzen bada, eta gainera ideia berriren bat ekartzen badu, ez da gutxi. Horregatik, komisioka banatu eta gainerakoaren martxa, laister hartuko dute.

Juan Ramon

«Urte bukaeratik aldatu nahi genuen zuzendaritza baina inor aurkezten ez zenez, azkenerako, bilera batean disoluziozko puntua aurkeztuko genuela erabaki genuen»

Junta berriari dagokionez...

◆ **Zeinek osatzen duzue junta berria, eta noiztik, Arantxa?**

A: Otsaila aldera izango zen aurkeztu ginenean, ezta JR?

JR: Bai, urte bukaeratik aldatu nahi genuen zuzendaritza baina inor aurkezten ez zenez,

Arantxa Agirre

«Egia esan, beti komentatzen genuen koadrilan Aurreran sartu beharko genukeela, baina azkenean paso egiten genuen, Juan Ramonek dioen bezala, hau galtzeko zorian ikusi genuen arte»

Aurrera elkarteko lehengo eta egungo zuzendaritzako kideekin solasean.

azkenerako, bilera batean disoluziozko puntua aurkeztuko genuela erabaki genuen. Horregatik, behartu samar aurkeztu ziren hauek otsaila aldera (bestela Aurrera desegin beharko baitzen).

A: Eta osaketaz, ba...Xabier Arraras («pexkau») dugu lehendakari, ni lehendakariorde, Olatz Arizmendi idazkari, eta Jaione Alduntzin da diruzaina.

Hori bai, gero komisioak daude (etxeko mantenimenduarena, krossa eta San Juan bezperarena, kirolarena, pesta eta ihoteetakoa, etab.), bakoitzean 8 pertsona inguru sartuta eta gutariko bakoitza gehienez bi komisioren barruan egonez.

◆ Nolatan ausartu zarete honetan sartzera? Juan Ramonek dioen bezala erdi behartuta, ala pentsatuta zeneukaten?

A: Egia esan, beti komentatzen genuen koadrilan Aurreran sartu beharko genukeela, baina azkenean paso egiten genuen, Juan Ramonek dioen bezala, hau galtzeko zorian ikusi genuen arte.

◆ Hemen sartzean, aurkitu al zenuten Arantxa, esperoko ez zenuten ezustekorik?

A: Ba, lan asko eta asko egin behar dela edozer ateratzeko, baina gainerantzean deus arrarorik ez.

◆ Lehengo juntakoen laguntzarik jasoko zenuten guztiaren berri jakiteko, ezta?

A: Bai, asko...eta oraindik lagundu behar digutena!

Guk, elkartu ginenean, ez genekien nola egiten ziren gauzak eta hauek bapatean dena utziko balute...auskalo! Horregatik etorri izan zaigu Juan Ramon, gauzak pixka bat nola eraman bideratzeko.

JR: Lagundu? Deus ere ez. Ni oraindik zain nago noiz gonbidatu behar ote nauten bileraren batera...

◆ Ikusi al duzue ezer aldatu nahiko zenuketeenik?

A: Oso denbora gutxi daramagu hori esateko, baina printzipioz guk orain egin nahi duguna dagoenari eustea da eta ideia berriak ateratzen badira... ba hobe!

JR: Aurrera, hauek izatea nahi dutena izango da, eta aldaketarik egiteko aukera oraintxe dute, beraien esku baitago berrikuntza, beraz... aprobetxa dezatela.

◆ Une honetan, zein ekintza ari zarete prestatzen?

A: Ba, oraintxe, maiatzaren 28rako, bertso-aparia prestatu zen sagardotegian, Maialen Lujanbio eta X. Silveira-rekin.

San Juan bezperarekin ere ari gara: afariko kafea, ardoa, musika etab. antolatzen. Gainera aurtengoan, Aurrerako dantzariek eskolan umeei ingurutxoa erakusteko hitzegina daukagu.

Bestalde, Udaletxearekin ere hasiak gara pestak prestatzen, eta zera aurreratu diezazueket: izango dela bai sorpresa berririk aurten! Eta bueno... bestela ere etxearen kontuak daude. Gainera zera aipatu nahi nuke: lokala denena dela badakigu ere, batzuen jokaerekin arazoak izan ditugu eta legeetara jotzeko beharra ere bai. Horregatik bazkideei gogoraraziko nieke, norberaren errespontsabilitatea dela hau ongi mantentzea, bestela jai genuke!

JR: Hori da! Askok ahaztu egiten dute etxe hau 300ena dela, eta ez «lau bururena».

Bueno, ba... zorte on eta ea «Leitzeko herrik» martxa honi eusten dion aurrerantzean ere!

Arantxa Agirre

«Guk orain egin nahi duguna dagoenari eustea da eta ideia berriak ateratzen badira... ba hobe!»

«Udaletxearekin ere hasiak gara pestak prestatzen, eta zera aurreratu diezazueket: izango dela bai sorpresa berririk aurten!»

Boga, boga...

Leitzatik Bermeora

Leitzako zinean baino ikusle gehiago bildu zen jokoak ikusten, eta sarrera ordaindu gabe!

Gauza batzuetan indar gehiegi gastatzen bada, beste batzuetarako gutxiegi gelditzen da gero. Ah! Txintxurrinen aritzeko triparen gainean etzateak balio al du? edo jertsea da?

Eskien jokoa: hori da, hori, koordinazioa. Hala ere, burua altxatzea ere komeni da, nora zoazen ikusteko.

APIRILAK 1. 9:00

LEITZAKO PLAZA.

Kultur taldeko eta euskara batzordeko 4 lagun elkartu dira. Ahaztutako esterilak eta bestelakoak bildu eta Bermeora abiatu dira.

APIRILAK 1. 11:30

BERMEOKO UDALETXEA.

Sarako ordezkariak Bermeoko uso-kaka iletik garbitu ondoren, benetako ongi etorria eman digu Bermeoko alkateak, 6-7 zinegotzik lagunduta. Ondoren, hiru herriotako kultur eta euskara taldeen arteko esperientzia eta informazio trukaketa: pozak, penak, txutxumutxuak, herrien inguruko argibideak, diapositibak,...

APIRILAK 1. 16:30

SAN FRANTZISKO IKASTETXEA.

Bi autobus iritsi dira Bermeora. Saratarrak eta Leitzarrak dira. Elkarri begiratuz, nahasi gabe. Saratarrak saratarrekin, leitzarrak leitzarrekin. Leitzarrak, bakoitza bere koadrillakoekin (beranduxeago nahasiko dira gauzak). Eskolan trasteak utzi eta Lamera parkera goaz.

APIRILAK 1. 17:00

LAMERA PARKEA.

Ikaragarria da baina egia. Leitzarrak hitzordura iritsi dira, garaiz! besteak ere bai. Besteak ere bai? non dira Bermeotarrak? ah! bat behintzat badugu. Mugitua da gainera, eta berak jarri gaitu beste guztiak martxan gazte asanbladakoek antolatutako jokoak egiteko. Leitzarrak nagusi! jakina, estatistikoki ezin bestela izan, Leitzako pelotoiak 50-60 unitate baitauzka.

APIRILAK 1. 19:30

LAMERA PARKEA.

Dantzarien kalejira hasi da. 3 herrietako taldeek portu ingurutik desfilea egin dute. Bitxia da ikustea Leitzako txistularien atzetik doan fauna. Leitzan horrelako irudia ikustea ez da erraza. Dantza saioan Sarakoak dira lehendabizikoak, leitzarrak bigarrenak eta bermeotarrak hirugarrenak. Ez da komeni gehiegi sinestea, baina nahiko inpresio ona eman zuen Leitzako taldeak, batez ere ingurutxoko aurrelariaren eta atzelariaren lanari esker.

APIRILAK 1. 20:30

HERRIKO OSTATUAK.

Nola ezagutu Bermeo, Bermeoko tabernak ezagutu gabe? Leitzarrak berotze ariketak egiten hasi dira: batzuk trikipoteoan, besteak poteo hutsean, trikirik gabe. Denak, hori bai, poteoan.

APIRILAK 1. 22:00

SAN FRANTZISKO IKASTETXEA.

Afaria. 220 lagun. Entsalada, sukalkia

(gisadua), fruta eta ardoa, Bermeotarrek jarria. Patxarana, Leitzatik eramana, fruta jan eta berehalako «estampida»rik gerta ez zedin. Giro ona, kantatzeko saiakera bat edo beste eta baita dantza ere. Dantzara atera zirenen % 95 neskak ziren. Zergatik ote?

APIRILAK 2. 00.00ETATIK AURRERA
BERMEOKO ALDE ZAHARRA.

Tabernen okupazioa. Dopiña. Transformazioa. Hasieran baxu-baxu hitz egiten zuena, dagoeneko oihu betean ari da. Jokotan parte hartzeko lotsaz zebilena denekin hizketa zoroan ari da. Herrien arteko harremanak lantzen ari dira batzuk, herri barrukoak lantzeko aprobetxatuz ere beste batzuk.

APIRILAK 2. 7:00
BERMEOKO ALDE ZAHARRA.

Bermeon ere, toki gehienetan bezala, eboluzionatu gabeko austrolopitecus-ak ere badaude, eta guri egokitu behar!! Programazioan ez zegoen boxeo-saioa. Kaka zaharra! Kolpe bat edo beste, sustoa ikaragarria eta amorrazioa ere galanta. Tira, Bermeotarrek zortea izan dezatela jendilaje horrekin.

APIRILAK 2. 10:00
MUNDAKA.

Leitzatik etorri den bigarren autobusekoak eta bestondoari aurre egin diotenak bildu dira eta, txintxo-txintxo, Edorta Jimenezen azalpenei adi, ordu t'erdiko ibilaldi zelai eta xuabea egin dute. Mendi ibilaldi bitxia izan da, mendirik gabekoa. Tarteka gauza ezberdinak ere probatu behar baitira.

APIRILAK 2. 11:00
BERMEOKO PILOTALEKUA.

Pilotariek hitza bete dute, baita txintxo etorri ere, nahiz eta ikusle gutxi agertu ahalegina eskertzera. Hiru herrietako pilotariek nahasita jokatu dute, beraz, emaitzekin herri guztiak pozik.

Bermeotar, saratar eta leitzarren arteko elkar ezagutza omen zen, baina batzuk leitzarren arteko «elkar ezagutzan» zentratu ziren, beste batzuk falta zirela aprobetxatuz.

Soskorrak biltzeko jokoa zein den badakizue, ezta? soskorrak BANAKA! bildu behar dira. Sergio, binaka biltzeak ez du balio!

Mendi ibilaldi bitxia: mendirik gabea, zelaia.

Elkar ezagutzaren momenturik gorena: afalondoa!

APIRILAK 2. 13:30
LAMERA PARKEA.

Asketak eta Bermeoko abesbatzak kontzertua egin dute kalean. Jende asko, giro polita eta bi taldeen arteko koordinazio ona, aldez aurretik prestatu baitzuten. Batzuk besteak baino freskoago egonen ziren, seguraski, baina ez zen kanpotik nabaritzen.

APIRILAK 2. 15:00
BERMEOKO PLAZA.

Bermeotarrek, berriz ere, otordua eman digute saratar eta leitzarroi. Salda beroa eta solomo otartekoa. Ederki sartzen da, sartzen zaionari behintzat, batzuk oraindik ajea ezin gaindituz daude eta. Ondoren, herrian zehar sakabanaketa, azkeneko orduak pasatzeko. Batzuk portura, besteak paseoan, eta besteak tabernara (berriz? hau dun/k marka).

APIRILAK 2. 18:30
LAMERA PARKEA.

Istiluen ondorioz logikoa izan daitekeen psikosiak sortutako urduritasun punttu horrekin, bi autobusak eta kotxeak Bermeotik atera dira. 2 ordu inguruko bidaia, 20:30etan Leitzan gaude.

Asteburua bukatu da. Nahikoa lan eginda: aldez aurretik gehienbat koordinazioan eta asteburu horretan batez ere Bermeotarrek gure otorduak prestatzeko egin zutena. Balantzea gazi-gozoa, jakina. Baina istiluak kenduta, gauzak ongi samar atera zirela esan daiteke eta, beraz, istorio honen bukaeran ere jarri behar da ohiko «jarraituko du» hori. Gainera, bigarren partea seguraski Leitzan izanen da. Bitartean, elkar ezagutzarekin jarrai dezagun, baita Leitzan bertan ere (norberak ikusiko du hori nola ulertu behar den).

Leitzako gazteak jolasean

Mahai-inguru hau apirilaren 7an egin genuen Aurrera elkartean. Pasta batzuk lagunduta, eta «gazteen arteko euskararen erabilera» gaia jarrita, hauek dira atera ziren ideietako batzuk. 7 edo 8 galdera besterik ez genituen behar izan, gure mahaikideak hitz jario handikoak izaki, gehiegi tiratu gabe hizketari ekin baitzioten.

Euskararen erabilerari buruzko hausnarketak.

Aitziber S.

«Euskaraz ez dakien bat edo erderaz egiten duen bat baldin badago, erderara pasatzen gara, erderaz hitz egiteko ohitura hartzen da»



Luze

«Badaude koadrilla erdaldun hutsak, beste batzuk bietan aritzen direnak eta beste batzuk euskaldunak, baina nik uste gehiago direla euskaldunak.. Batek hartzen badu euskaraz hitz egiteko ohitura eta jendea ohitzen bada berarekin euskaraz hitz egiten, normalean euskaraz biziko da»

◆ **Zuen ustez, Leitzako gazteen artean zein da gehien erabiltzen den hizkuntza: euskara edo espainola?**

Mapi: nere ustez lehenago gazteek erderaz gehiago hitz egiten zuten orain baino. 10-12-24-16-20 urtekoak euskaraz aritzen dira.

Bihotz: 14-16 urtekoak ere erderaz ikusi ditut nik asko.

Ainara: Nik uste lehen erderaz eta euskaraz egiten zuenak orain gehiago hitz egiten duela euskaraz, eta osotara erderaz hitz egiten zuenak, erderaz hitz egiten duela. Nere ustez gehiago euskaraz hitz egiten da.

Luze: Ni Mapirekin nago. Lehen gehiago egiten zen erderaz. Tabernatan-eta.

Saioa: Nik uste kriston haustura dagoela 20 urteen inguruan eta eskolak eragin handia daukala. Orain ez dago erderaz ikasten duenik Leitzan. 20tik gora askoz gehiago aditzen duzu erderaz hitz egiten, 20tik behera baino.

Luze: Badaude koadrilla erdaldun hutsak, beste batzuk bietan aritzen direnak eta beste batzuk euskaldunak, baina nik uste gehiago direla euskaldunak.. Batek hartzen badu euskaraz hitz egiteko ohitura eta jendea ohitzen bada berarekin euskaraz hitz egiten, normalean euskaraz biziko da. Beste batzuk erderaz ohitzen dira, beti erderaz bazilatzen dute, erderaz sartzen dira mundu guztiarekin eta horri erderaz hitz egiten zaio.

Mapi

«Lehenago gazteek erderaz gehiago hitz egiten zuten orain baino. 10-12-24-16-20 urtekoak euskaraz aritzen dira»

◆ **Euskaldunak izanda, zergatik egiten da erderaz?**

Bihotz: Mila motibo izan daitezke

Aitziber S.: euskaraz ez dakien bat edo erderaz egiten duen bat baldin badago, erderara pasatzen gara, erderaz hitz egiteko ohitura hartzen da.

Aitziber B.: Nik uste dut denaren gainetik kontzientzia falta punttu bat badagoela.

Mapi: ohiturak aldatzea ere zaila da.

Aitziber B.: zaila da baina, azkenean, zuk garrantzia ematen badiozu horri eta kontzientza baldin badaukazu, azkenean horrek egon beharko luke gainetik. Badakigu denok komodidadeagatik edo ohituragatik errezagoa dela, baina hori argi ta garbi baldin badaukazu saiatzen zara zu euskaraz bizitzen.

Bihotz: adibidez, institutoan eta hasi ginenean, Andoaingoekin eta kristo

Euskararen erabilerari buruzko hausnarketak.

Ainara

«Nik askotan tabernan ikusi dut 14 urtekoak etorri eta «pon no se que, pon no se cuantos» erderaz, eta harrituta gelditzen zara, 14 urtekoak erderaz»

guztiarekin erderaz hasi ginen. Hor bakoitzak bere bidea hartu zuen.

Saioa: Askotan lotzen duzu pertsona baten izaera hizkuntza batekin. Igoal gehiegi esatea da baina pertsona aldatzen da hitz egiten duenaren ariora. Ni ez naiz berdin sentitzen euskaraz hizketan edo erderaz. Eta ohitzen bazara pertsona batekin erderaz tratatzen, pertsona hori euskaraz ere diferentea da.

Ainara: Nik lehenago erderaz egiten nuen beti eta Torren hasi naizenetik euskaraz egiten dut, eta etortzen zaizkidanean Torrera nik euskaraz egiten diet eta erderaz erantzuten didate, eta nik euskaraz eta besteak erderaz, euskaraz-erderaz, eta horrela ibiltzen gara.

◆ **Ohiturak aldatu daitezkeela frogatua dago, are gehiago Leitza bezelako herri batean, non euskaraz egitea guztiz naturala den. Ohitura hori garai batean aldatu zen (txikitan euskaraz egiten genuen eta gero erderaz), eta orain? Hor badago adin bat 14-16 urte bitarteanedo, eta hor gauzak aldatzen hasten dira.**

Mapi: Nik ez dakit adina den edo beharbada kanpoan erlazionatzen hasten zarela, Iruñekoekin, Andoaingoekin. Ni pentsatzen ari nintzen 12-13-14 urteko gehienek euskaraz hitz egiten dutela, nik ezagutzen ditudanak.

Ainara: Nik askotan tabernan ikusi dut 14 urtekoak etorri eta «pon no se que, pon no se cuantos» erderaz, eta harrituta gelditzen zara, 14 urtekoak erderaz.

Luze: Bere inguruan erdera asko dago: txisteak erderaz dira,...

Ainara: edo hitz egiteko zer modu duten ere bai. Beste gazte bati zuzenduta ba, «jode tio,...», horrelakoak,...

Aitziber B.: horrelakoak ez daude euskaraz

Saioa: espresio asko erdaraz erabiltzen dira

Aitziber B.

«Nik ere izan nuen adin bat erderaz askoz gehiago hitz egiten nuena eta justo adin hori zen, 15 urte, ezberdin izan nahi duzun adin hori, edo pasotagoa, edo kontra gehiago egin nahi duzun hortan, eta euskaraz ez dago hizkuntz-modu hori; gero kontzientziatu egiten zara eta aldatzen duzu baina adin horretan karga handia izan zuen horrek, ezberdin izan nahi horrek»

◆ **Gazteak bere gurasoengandik eta jende helduarengandik ezberdintzeko erabiltzen du jazkera, arropa, ... eta hizkera ere bai. Erdarak badu argot edo jerga bat «de que vas», «mogollon»,..., gazte hizkera moduko bat, ezberdintzen duena. Euskaraz hori ez daukagu, falta zaigu, eta horren aurrean bi soluzio erabiltzen dira: edo euskaraz hitz egin eta erderaren makulua erabili, espresio horiek erderatik zuzenean hartuz, edo zuzenean erderara jo.**

Aitziber B.: nik ere izan nuen adin bat erderaz askoz gehiago hitz egiten nuena eta justo adin hori zen, 15 urte, ezberdin izan nahi duzun adin hori, edo pasotagoa, edo kontra gehiago egin nahi duzun hortan, eta euskaraz ez dago hizkuntz-modu hori; gero kontzientziatu egiten zara eta aldatzen duzu baina adin horretan karga handia izan zuen horrek, ezberdin izan nahi horrek.

Luze: seguraski erderara pasatzeko egonen dira arrazoi batzuk, bakoitzak aportatuko du pixka bat eta azkenean hori gertatzen da; lehen esan dugu kontzientzia falta; gero jergarena, eta abar.

Saioa: Herritik kanpo ateratzearenak

ere eragin handia du. Gu adibidez 18 urte arte Leitzan ikasteko aukera dugun lehendabizikoak gara eta gure adinean badaude asko erderaz hitz egiteko joera dutenak, koadrillaren edo giroaren arabera, baino gure artean askoz gehiago egiten da euskaraz lehenagokoen artean baino.

Aitziber B.: Guri alderantziz gertatu zitzaigun. Hemen joera handiagoa genuen erderaz hitz egiteko eta gero Tolosaldera jeisten bazinen han, normalean, edo gure inguruko jendeak behintzat, euskaraz. Gure klasean behintzat.

Luze: Gero beste giro urbano batera pasatzen bazara han kontzientzia handiagoa izan daiteke. Hemen euskaraz hitz egitea normala da. Ni Bilbora joan nintzen ikastera eta han giroa erdalduna da; han askoz ahalegin handiagoa egin behar da baina jendea aritzen zen, kontzientzia handiagoa dute, euskaltegietatik pasatu den jendea,...; Kriston meritoa daukate.

Saioa: gu hemen Leitzan ohituak gaude beti euskara giro batean eta agian ez zaio hainbeste garrantzia ematen ez baduzu kontzientzia bat. Kanpora joan eta denak erderaz ari direnean hasten zara pentsatzen edo zureari eusten, eta han erderaz bizi direnek euskara ez dutenez horren bila joanen dira agian.

Bihotz: Baita ere pasatzen da unibertsitatera joaten zarenean jende euskaldun asko biltzen dela. Neri Gasteizen pasatu zitzaidan. Ez da getho bat bezala baina denak bildu egiten gara, eta biltzen zara zerbait amankomunean duzulako, eta lotura horrek baita ere bultzatzen zaitu nolabait ere euskaraz hitz egitera, euskarazko bizia egitera.

Eugenio: guk erderaz ikasten genuen eta klasean elkartzen ginen urtero-urtero euskaldunak ginenak, nahi gabe edo nahita. Hori bai, erdaraz ikasten baduzu erdaraz aritzen zara

Mapi: gure gelan kontrakoa pasatzen da. Euskaraz ikasten ari gara eta 6-10 gaude euskaraz hitz egiten dugunak eta beste guztiek erderaz, eta neri hori nahiko fuertea iruditzen zait. Apunteak euskaraz hartzen ari zara eta «que ha dicho?», oso-oso fuertea da eta gero manifa guztietan eta euskararen alde eta bat eta beste.

◆ **Iruñeko jendearen ama-hizkuntza normalean gaztelania da eta erdaraz hobeki moldatzen da. Hizkuntz kontzientzia argirik ez badu normalean errezenera joko du: erderara. Baina hemen Leitzan, gazteen ama hizkuntza normalean euskara da, eta euskaraz ongi moldatzen dira. Hala ere, askotan, hitz egiteko garaian erderara jotzen da nahiz eta gero esan euskararen aldekoa dela. Hor**

Bihotz

«Unibertsitatera joaten zarenean jende euskaldun asko biltzen da. Ez da getho bat bezala baina denak bildu egiten gara, eta biltzen zara zerbait amankomunean duzulako, eta lotura horrek baita ere bultzatzen zaitu nolabait ere euskaraz hitz egitera, euskarazko bizia egitera»

Saioa

«Gu hemen Leitzan ohituak gaude beti euskara giro batean eta agian ez zaio hainbeste garrantzia ematen ez baduzu kontzientzia bat. Kanpora joan eta denak erderaz ari direnean hasten zara pentsatzen edo zureari eusten, eta han erderaz bizi direnek euskara ez dutenez horren bila joanen dira agian»

kontraesana badago. Ez da oso koherentea

Luze: Pentsatuko dute erdaraz arituta ez diotela euskarari inolako kalterik egiten, edo ez dira hortan pentsatzen jarri izan.

Eugenio: Hor dago erreztasuna, edo azkarrago esatea, pentsatu gabeko hitzak,...

◆ **Leitzako gazte askok esaten dute ez dakitela ongi erderaz baina zaila da hori sinestea, gero jo ta ke erderaz aritzen dira eta. Orokorrean zer uste duzue, ongi moldatzen dira Leitzako gazteak erdaraz? eta euskaraz?**

Saioa: Segun zer espresatu nahi duzun. Gure inguruan hori oso garbi ikusten dut. Gure artean euskaraz dakigunak, denak gara, eta erderaz ongi hitz egiten dakitenak, gutxiago dira, eta badago jendea zailtasunak dauzkana erderaz hitz egiteko, eta lotsa... Eta gero igoal ikusten dituzu erderaz hizketan baina, zer, juerga giroan,...

Mapi: hori da hasieran esaten genuena. Oraingo gazteek igoal bai dutela zailtasun hori erderaz hitz egiteko baina gu eta,...

Luze: Nik ez dut uste

Eugenio: Adibidez zure koadrillan, zure inguruan gazte guztiak berdinak zarete? denok berdin menperatzen duzue euskara, igoal erdera baino gehiago?. Gurean adibidez, dakidanez ez. Gero gu bi talde bildu ginen eta orduan hasi ginen ikasten berriz euskaraz. Gu erderaz hasi ginen gure artean, jende ezberdina ginen, batzuk helduagoak, eta erderaz egiten genuen. Gure koadrilla bi pusketan zen, erdaldunak eta euskaldunak, eta orain ere ateratzen zaigu gure artean erderaz hitz egitea.

Bihotz: Ni erderaz hasten banaiz segun zer pertsonarekin, hasten banaiz pentsatzen: «ostra, ostra...» eta orduan eta okerrago baina gero igoal momentu batean ez zara enteratzen erdaraz ari zarela eta oso ongi moldatzen zara, moldatu denak moldatzen gara ongi

Luze: moldatu bai

Aitziber B.: Gero ere arraro ikusten duzula zure burua egoera horretan, baina ez dut uste gaizki hitz egiten dugunik. Arrotza sentitzen zara zu momentu horretan zure buruarekin edo ari zarenarekin, baina,...

◆ **Erderak sekulako presioa egiten du, oso presentzia handia du eta gu ohartzen ez bagara ere toki guztietatik sartzen zaigu: zinea, musika, prentsa, kanpora joatean, ikasketak,...**

Luze: eta posiblea da erderaz bizitzea Leitzan. Orduan, egiten ez duenak ez du presio handiegirik. Zu bizi zaitezke ederki, taberna guztietan, jendearekin ongi moldatu eta bizitza osoa kontu kontari pasatu Leitzan. Igoal aiton batekin, baserritar batekin problemak izanen dituzu

Eugenio: baserritarra saiatuko da

Luze: zu Errusiara joaten zara eta seguraski hango hizkuntza ikasi beharko duzu baina Leitzan ez da hori pasatzen, orduan erderaz funtzinatzen duten pertsona horien inguruan sortzen da giro erdalduna

Aitziber S.: hemen erdaraz bizi diren horiek seguro kanpora oporretara joan, topatu herri euskaldun bateko jendearekin eta euskaraz joanen dira horiengana, seguro gainera

Eugenio: pentsatzen dut ez dutela txarkeriz eginen

Eugenio

«Gu erderaz hasi ginen gure artean, jende ezberdina ginen, batzuk helduagoak, eta erderaz egiten genuen. Gure koadrilla bi pusketan zen, erdaldunak eta euskaldunak, eta orain ere ateratzen zaigu gure artean erderaz hitz egitea»

Euskararen erabilerari buruzko hausnarketak.

Aitziber S.: baina esan nahi dut Leitzan txip hori ez dagoela, baina kanpora joan eta han baldin badaukazu euskaldun bat euskaraz aritzen zara

Bihotz: baina hori da kanpoan gurea defenditzeko edo...

Saioa: eta zergatik zure bikotearekin hitz egin behar duzu erderaz eta umearekin euskaraz? zure nortasuna-edo, ez dakit, mantendu nahi duzu nolabait eta kanpora joaten zarenean gauza bera

Bihotz: baina hemen ez duzu erakutsi beharrik nongoa zaren edo zer zaren.

◆ **Hitz egin dugun guztia jakinda, eta ikusita gazte euskaldunen artean ere erderaz egiten dela askotan, Leitzan zerbait egin daitekeela uste al duzue, jendea euskaraz hitz egitera animatzeko, edo alperrik ote da?**

Luze: maila pertsonalean bai

Aitziber S.: baina norberak ohartu behar du, zu ezin zara batengana joan eta esan «zuk euskaraz hitz egin»

Aitziber B.: horrela ez, baina eragina duten gauzak badaude, kontzientzia, bati pentsatuarazi egiten diotenak, ez? gauza askok, entzunez, azkenean eragina badute zuregan eta pentsatzeko modua ere aldatu egiten da. Nik eduki nuen bolada bat erdaraz askoz gehiago aritzen nintzena baina zerbaitek eduki izan zuen eragina, horrek aldatu behar zuela nik esateko, ez? nik uste denak duela eragina, inkonszeinteki bada ere; Ordun gauzak egin behar dira, bota egin behar dira eta azkenean barneratu egiten dituzu.

> **Aitziber B.**
>
> ***«Nik eduki nuen bolada bat erdaraz askoz gehiago aritzen nintzena baina zerbaitek eduki izan zuen eragina, horrek aldatu behar zuela nik esateko, ez? nik uste denak duela eragina, inkonszeinteki bada ere; Ordun gauzak egin behar dira, bota egin behar dira eta azkenean barneratu egiten dituzu»***

Saioa: adibidez bilera hau daukagu, joaten gara bakoitza bere girora eta ematen du hemen gelditu dela baina igoal pentsarazten dizu eta gero esten duzu «ba nik jarri behar dut etiketa horietako bat» eta ea horrela nerekin hitz egiten duenak euskaraz hitz egiten duen.

Luze: gazte koadrilla batzuk, izaeragatik edo giroagatik erderaz funtzionatzen dute; 16-20 urte bitarte horretan, jazkera,... eta joera errebelde bat bezela: bizitzen den momentu hori, kontra egitea,... eta igoal erdera da kontra egiteko modu bat ez? esateko «ba begira, Leitzan dena euskaldunak gara, ba gu ez, toma ya», eta behar bada ez dira ohartzen...

Saioa: inkonszienteki joaten da hori, ez zara hasten pentsatzen «nik zer egin dezaket kontra joateko»?

Luze: ez, baina begira: zuk eramaten baduzu horrelako kresta bat, desberdin nahi duzu joan, igoal ez duzu horrela inoiz planteatu baina zuk zerbait desberdina eduki nahi duzu, eta hizkuntza da beste modu bat desberdin funtzionatzeko.

Aitziber: Baina kasu honetan agian desberdina izatea baino gehiago ez al da bilatzen helduen mundura hurbiltzea? Desberdintasuna markatzeko gehiago erabiltzen da argota edo jerga. Baina 13-14-15 urterekin hasten dira askotan gazteak erderaz hitz egiten, agian ikusten dute gazte asko, 17-18 urtetik gorakoak, erdaraz aritzen direla eta umeekin beti euskara erabiltzen dela. Orduan zigarroarekin bezela, erretzen hasten gara helduagoek bezela jokatu nahi dugulako, eta hizkuntzarekin berdin.

Hemen bildutakoa, irakurle, esandakoaren laburpena da. Luzeegi gelditukо litzateke dena transkribatzea. Nolanahi ere, edonori pentsarazteko balioko duelakoan, eta zuen lagunartean mintzagai izateko aitzakia eman dizuegulakoan, hortxe gelditzen da.

INKESTA

Gazteak eta euskara.

Honako hau, Leitzako institutoan 1999an egindako inkesta baten emaitza duzu: 14, 15, 16 eta 17 urteko gazteei egin zitzaien.

▼ Zure ustez, zenbat erdara eta zenbat euskara erabiltzen da Leitzan gazteen artean?

- Euskara > % 90 .....(% 25.9)
- Euskara % 80-90 .....(% 28.1)
- Euskara % 70-80 .....(% 28.1)
- Euskara % 60-70 .....(% 13.0)
- Euskara % 50-60 .....(% 4.9)

▼ Gazteek euskara gehiago erabil dezaten zerbait egin al daiteke?

- Bai.....66(% 76.7)
- Ez.....14 (% 16.3)

▼ Zerk bultzatzen ditu gazte euskaldunak erderaz hitz egitera?

- Ohitura .....20 .....(% 23.6)
- Erderaren prestigioa .....13 .....(% 15.1)
- Familia .....25 .....(% 29.1)
- Lagunak .....43 .....(% 50.0)
- 'Argota' edo gazteen hizkera berezia.....48 .....(% 55.8)
- Helduen eredua .....11 .....(% 12.8)
- Erraztasuna .....3 .....(% 3.5)

▼ Nola hitz egiten dute errazago Leitzako gazteek, euskaraz edo erdaraz?

- Euskaraz .....78 .....(% 90.7)
- Erdaraz .....1 .....(% 1.2)
- Berdin .....6.....(% 7.0)

▼ Eta zuk?

- Euskaraz .....72 .....(% 83.7)
- Erdaraz .....2 .....(% 2.3)
- Berdin .....11 .....(% 12.8)

▼ Zerekin identifikatzen duzu euskara?

- Gurasoekin .....12.....(% 14.0)
- Alderdi abertzaleekin .....14.....(% 16.3)
- Ikastetxearekin .....23.....(% 26.7)
- Lagunekin .....29.....(% 33.8)
- Telebistarekin .....1 .....(% 1.2)
- Udaletxearekin .....5 .....(% 5.8)
- Baserriarekin .....22 .....(% 25.6)
- Deusekin ez .....3 .....(% 3.5)

▼ Zer da zuretzat euskara?

- Hizkuntza bat besterik ez .....6.....(% 7.0)
- Euskal Herriko hizkuntza nazionala .....76.....(% 88.4)
- Nire etxekoen hizkuntza .....28.....(% 32.6)
- Leitzan erabiltzen den hizkuntza.....19.....(% 22.1)
- Politika .....3.....(% 3.5)
- Sinbolo bat .....16.....(% 18.6)
- Nire lagunen hizkuntza.....15.....(% 17.4)

▼ Zer da zuretzat gaztelera?

- Hizkuntza bat besterik ez .....66 .....(% 76.7)
- Euskal Herriko hizkuntza nazionala.....2 .....(% 2.3)
- Nire etxekoen hizkuntza .....6 .....(% 7.0)
- Leitzan erabiltzen den hizkuntza.....2 .....(% 2.3)
- Politika.....9 .....(% 10.5)
- Sinbolo bat .....0 .....(% 0.0)
- Nire lagunen hizkuntza .....3 .....(% 3.5)



Ezetz asmatu!

«Aaahh! urteak zein abudo pasatzen diren». Horixe pentsatuko dute Leitzar hauek beren burua hemen ikusten dutenean. Aspaldiko argazkiak baitira. Baina zuk, bai al dakizu nor diren? Hemengo honi begirada ez zaio batere aldatu; beste hark, berriz, gaur egun beste pertsona bat ematen du; ondokoa, esanda ere ez zenuke sinestuko bera denik. Ah, baina guk ez dizugu esan behar bakoitza nor den. Zerorrek asmatu beharko duzu: burua estutuz, edo galdetuz, baina zure jakinmina asetu nahi izanez gero zerorrek moldatu beharko duzu. Tira, animo.

Eta? asmatu al duzu? 6 argazkitatik 6 asmatu badituzu fenomenoa zara, arrakasta handiko detektibea izan zintezke. 5 asmatuta ere, ongi da, zure herriko jendea ezagutzen duzula esan daiteke. 4 asmatu dituenari sentsazio gazi-gozoa gelditukо zaio. 3 asmatu dituena kezkatzen has daiteke. 2 asmatu dituenak pentsatzen hasi beharko du bere inguruari arreta gehixeago jarri beharko diola. Bakarra asmatu duenari zer esan: desastre hutsa haiz!!. Azkenik, bakar bat ere asmatu ez duena: aizu, zure lagunak ezagutzen al dituzu?

FOTONOBELA

Euskaraz 'lanean' (II)

Euskaraz 'lanean' (II)

BERTSOTAN • Zuri

Zelaiak hasi loratzen eta
bihotza daukat tristerik
nere barnean aurkitu leike
hosto gabeko lorerik
goizian goizik egarri eta
gaua ordiko baraurik
gau ilunak ahaztu nahirik
aurrera joan ezinik (BIS)
zulo beltzean berriro ere
noiz eroriko beldurrik
hain zaila ote ezagutzea
bizitzaren alde onik (BIS)

Lauzpabost egun pasa zenitun
aldamenean nerekin
eta gaurdaino oraindik nago
maiteminduta zurekin
egun haietan heltzen ninduzun
zure beso horiekin
ta laztantzen muxuekin
ezin jakinik zer egin (BIS)
hainbeste zori hainbeste poza
banaturik elkarrekin
inoiz maitatu ote ninduzun
horixe nahi nuke jakin (BIS)

Leitzar anonimo batek

OLERKIA • Nere aitonak

Nere aitonak beti zioen,
bizitza guztian bortizki lan egin behar izan zuela
gaur nik mahaitik baztertzen ditudan banabarrak
etxeratzeko
Nere aitonak usu zioen,
amona bezalako neskatxa fina
gaurko egunean ez bezala, majina bat esfortzu kosta zitzaiola
ukitzeko.
Nere aitonak batzuetan zioen,
izkutuan malko ugari isuri behar izan zuela,
bere seme-alabak, gogorki baina zuzen
hezitzeko
Baina, nere aitonak inoiz ez zioen
egindakoek beretzat ahaleginik suposatu izan zutenik
hainbeste gauza esateko zerabilen bere «euskaa»
oztopoen aurrean mantentzeko.

Beste leitzar anonimo batek

IRRIFARREZ • Seme-alabak

Senar-emazte bat medikuarengana joan da:
- Egunon. (Senar-emazteak)
- Baita zuei ere. Zuek esango duzue.
- Ba, eginahalak eginda ere ezin haurdun gelditu eta dagoeneko ez dakigu zer egin.
- Ea ba. Nola edo zer egiten duzue horretarako?
- Hauxe, behin eta berriz. (Senarrak bi muxu eman dizkio emazteari masailean)
- Ez naiz harritzen haurdun ez gelditzea. (Medikuak harrituta). Nik erakutsiko dizuet zer egin.

Medikuak galtzak jetsi, emakumea biluztu eta amodioa egin dute. Amaitutakoan honela dio medikuak:
- Hau egunero eginez gero, ziur laister izango dituzuela seme-alabak.
- Beno, orduan zer eginen dugu? Zu joanen zara gure etxera edo emaztea ekarriko dut hona egunero?

IRRIFARREZ • Hontza hizk

Sartu da tipo bat maskotak saltzen dituzten ko batera eta honela dio:

- **Loro bat nahi nuke, bakarrik sentitzen ı mali bat ez zait gaizki etorriko.**
- **Badaukagu ba, loro bikain bat zuretzako (Saltzailea, oharturik inozo xamarra baten ordez, hontza saldu dio). Hau orai da, baina hitz eginez gero, berehala ikasi ketan eta oso lagungarri izango zaizu.**

Handik hilabete batera, berriro dendara itzı eta honela galdetu dio dendariak:

- **Zer, zer moduz loroa, hasi al da hizketaı**
- **Ez oraindik ez, baina lasai, jartzen (intentzioarekin (begik zabal-zabal eginda ter hasiko da.**



GURUTZEGRAMA

EZKERRETIK ESKUINERA

1. Leitzako Gazte Asanblada. Sartzeko ireki behar dena **2.** Leitzako zinezuzendari eta aktore ezagun baten ezizenaren kontsonanteak. Aresorekin muga egiten duen Leitzako auzo baten izenaren lehen letra. Leitzan, «ezezik». **3.** Euskaltegian ikasi eta lantzen dena. Gorriztarango baserririk altuenaren izenaren lehen letra. Azkeneko letra **4.** Ia-ia Goizuetan dagoen Leitzako baserri baten izenaren lehen letra. Leitzako mendi taldearen izena **5.** Hika, neskei noka, mutilei _o_a. xubitanea, xopillo eta utenea baserrien izenei falta zaien letra. Bokal errepikatua. Agurtzeko. **6.** Kaka...., futbol-estadio ezagun baten izena. Telefonoak esaten diguna. Mila. **7.** Gipuzkoako herria. Aldizkari hau egin duen taldearen izena, (alderantziz). **8.** Leitzako ardia. Laugarren mundu-gerran erabiliko den arma.

GOITIK BEHERA

1. Munduko herririk zoragarriena, ederrena, bitxiena,..... **2.** Beldur, ikara. Kea, Leitzako euskaraz. **3.** Leitzan ez dago letra horrekin hasten den toki-izenik. _arasain _alkor izenetan falta diren letrak. Gehiegi, bizkaieraz. **4.** Leitzako oilar eta oilo kantarien taldea. _onmartinbordari falta zaiona. **5.** _rdola, _rkizu eta _rdiñola toki-izenei falta zaiena. Gure matrikuletan (alderantziz). Bengoetxea..., buruzburuko txapelduna. **6.** Oso gustoko zerbait ikustean ahotik dariguna. Musika nota. **7.** Leitzelarreko parajerik ezagunena. **8.** Erasoteko ibilgailuetako matrikuletan. Bigarrena. Arrantzan erabiltzen da (alderantziz). **9.** Igarlea. Kontsonante bikoitza. **10.** Infusio mota. Erronkariko hartza (alderantziz). **11.** Leitzako auzoetan, hegoalderago kokatua dagoenaren izenaren lehen letra. «_o_oak beleari ipurbeltz» esaeran zer letra falta da?. Zenbat aldiz agon da Fidel Castro Leitzan?. Zerbait galdetuz gero, behiak erantzuten duena

Hizkuntz trebetasunak edo hizkuntz trabatasunak



Hizkuntza egunero erabiltzen dugun tresna da, komunikatzeko tresna. Baina tresna guztiak bezela, ongi edo gaizki erabil liteke. Batzuetan, beraz, erabilera okerrak ere gertatzen dira, eta gauza xelebreak ikusten ditugu. Xelebreenetakoak, askotan, itzulpenetan ikusten ditugu. Horietako batzuk bildu ditugu, adibide moduan, euskararekin ere nolakoak egin daitezkeen denok ikusteko.

Bihar eta berandu ..... Alegia, «mañana y tarde», bulego bateko lehiatilan

Noski bat ..... «un claro», ardoa eskatzeko. Literal samarra, ezta?

Erakarpen parkea..... «parque de atracciones». Agian beste era batekoa da

7etako azpigona..... «combinación de las 7», tren geltokian

Atsedenik ez drogarik gabe ..... «a tope sin drogas», drogaren euskarazko apologia

Oheburuko medikua ..... «médico de cabecera», Osasun Etxe batean ikusia

1. landarea edo 1. oina ..... «primera planta»

Itzulpenak aipatu ditugu lehentxoago. Ez da, ez, erraza itzulpenak egitea. Hizkuntza behartu egiten da askotan. Ematen duena baino zailagoa da eta, askotan, horretan hasi arte ez gara ohartzen. Ariketatxo bat proposatzen dizuegu, gure trebetasuna edo gure trabatasuna neurtzeko. Ariketa, gainera, Leitzako euskaraz egitea proposatzen dizuegu:

Nola esanen ziñuke Leitzeko euskaraz?

- yo te podía dar el papel ayer
- vosotros me disteis los recados
- mañana podré traer las manzanas
- ayer te vimos
- tus amigas me cayeron muy bien
- agua potable

Laaaaasssaaai!! Ez pentsa euskaraz ez dakizunik. Kontua da itzultzea zail samarra dela. Egin proba, bestela, alderantziz eta erderatu itzazu euskarazko esaldi hauek. Ikusiko duzu hori ere ez dela erreza.

Nola esanen ziñuke erdaraz?

- zerri hiltzea
- Leitza aundi, Iruñen pare, madril'e nai giñuke
- ez da, nonbaitte, oso gustora eondu
- etorri al die baserrietako esketik?
- ixtorretan lanen aritu naiz

EROSKOPOA

Aries: sartu zerbatte aban, ia hola gutxio itzeitte zon!!

Taurus: eztozo asko behar pozik eotteko: biaje luze ta ear bat, automobille, etxea...

Gemini: zuk'e telebasura gaitzetsi, baño saio hoik besteik eztittozo ikusten

Cancer: depresioak jota ta zuloan sartute bazaude, deizaiozo Klaudio Landari

Leo: hauts zurie asko gustatzen zazo zuri, ezta hala? non dao azukre ontzie?

Virgo: auzokoak kejo dittozo baño zuri etzazo inporta koltxobek soñue ateatzea

Libra: ze? hainbeste denbo irao ta oanddik Bermeoko pestondoakin? ai ai, ai!

Scorpius: futbola, futbola ta futbola! balon aurpegie jarriko zazo atzeneako!

Sagitarius: lertu beharrean zaude, hainbeste gauze dittozo burun. Bota irrintzi pare at!

Capricornius: ikusi al dozo zere burue ispilun aspalditxo hontan? zozo arpegi horrekin Lorena Bernal zalakoan?

Aquarius: Enrique Iglesiasen kontzertu et ikusiko ziñuke zuk gustoa Kakazelaien, ez al da hala?

Piscis: ipurdi airin ibillizkero, errex gaizkitzen da eozin, kontuz ibilli!!!

KOMIKI TIRA



eta zuk, zer diozu?

Oihana Astibia

Oporrak: Brasil edo Himlaya?
Brasil, beroarengatik. Himalayan hotz handiegia dago.
Zertara?
Ongi pasatzera eta eguzkia hartzera.
Garagardoa, ardoa edo kanutoa?
Garagardoa...
Onttoak edo Mongiak?
Onttoak.
Bakallua, rock & roll-a, salsa edo trikia?
Entzuteko rock & roll-a, eroarena egiteko bakallua.
San Ferminak edo San Tiburtzioak?
San Tiburtzioak, igoal.
'El gran hermano' edo 'Txotxi-Klaudio'?
'Txotxi-Klaudio' nahiago (nahiko duda egin ondoren).
Irakurri duzun azken liburua?
'Los cazadores de Mamuts'
Zure zaletasunik handiena?
Asteburuetan ateratzea, *sofing* eta *zaping* egitea.
Zure maniarik handiena?
Gauzak ongi bukatzea gustatzen zait, erdizka utzi gabe, nahiz eta horretarako denbora gehiago behar izan.
Sutan jartzen zaituen gauza bat?
....., mmmmhhh, ..., mmmmhh (ez zaio deus ateratzen, beraz, garbi dago ez dela nolanahi sutan jartzen).
Parranda bukatzeko, bikotea edo koadrilla?
Koadrilla, bañooooo.....
Leitzan zer falta da?
Gazteei iniziatiba falta zaie.
Leitzan zer dago sobera?
Guardia Zibilak.

Ruben Astibia



Oporrak: Brasil edo Himlaya?
Brasillen.
Zertara?
Eguzkia hartzera eta beste kultura bat ezagutzera, mundua ezagutzera.
Garagardoa, ardoa edo kanutoa?
Garagardoa eta ardoa.
Onttoak edo Mongiak?
Onttoak, ardo botilla on batekin.
Bakallua, rock & roll-a, salsa edo trikia?
Bakoitza bere momentuan; neri musika guztia gustatzen zait.
San Ferminak edo San Tiburtzioak?
Biak a tope.
'El gran hermano' edo 'Txotxi-Klaudio'?
Ez dut ikusten ezta bat; ez bat ez beste.
Irakurri duzun azken liburua?
'La nariz de Moritz', EGB-n, 7. mailan.
Zure zaletasunik handiena?
Parranda pixka bat, kirola pixka bat, eta neskak.
Zure maniarik handiena?
Ez naiz maniatikoa.
Sutan jartzen zaituen gauza bat?
Bortxakeria.
Parranda bukatzeko, bikotea edo koadrilla?
Biak gosari eder batekin.
Leitzan zer falta da?
Lana eta gazteentzako lokala.
Leitzan zer dago sobera?
Pikoletoak. Bestela herria ongi dago.